

**EUSKARAREN TRANSMISIOA:**

# Etxeko joerak umeen eredu

*Etxean zer ikusi, hura ikasi* lemapean lanean ari dira joan deneko hiru urtean Buruntzaldeko Udalak. Helburua zera da, gurasoak ohartaraztea seme-alaben hizkuntza heziketan zein garrantzitsua den etxeko transmisioa, alegia, etxean jaso, ikusi, sentitu eta batez ere, entzun dutena umeentzat eredu dela ohartaraztea. Esaera zaharrak dioen bezala, *umeek etxean zer ikusi, hura ikasi*.

UMEARENTZAT eredu dira bere ingurune hurbileko helak: irakasleak, zaintzaileak, begiraleak, eta batez ere, gurasoak. Konpainia horretan barneratzen ditu umeak hainbat eta hainbat ezagutza, jarrera eta balio, bizitzan zehar berarekin eramango dituenak. Bere izaera garatzen lagunduko diotenak, ez bakarrik hizkuntzari dagozkionak, baizik eta bere ahalmen guztien garapen oso eta egokira beharko dituenak, bere bizitza ikusteko modua osatuko dutenak. Prozesu horretan barneratuko ditu umeak, besteak beste, hizkuntza ezagutza eta honekiko jarrera.

Etxeko hizkuntz ereduaren garrantziaz jabetuta, Buruntzaldeko Udalak transmisioaren inguruan lanean ari dira joan deneko hiru urtean. Helburua, batik bat, gurasoek transmisioaren gaineko hausnarketa egitea da, bere garrantziaz jabetzea eta bakoitzak ahal duen neurrian, pausoak ematea, txikiak izanda ere, euskararen erabilera normalizatzea.

**Hizkuntza transmititzeko modurik onena familia**

Familia da euskara ikasteko modurik erazena, merkeena eta eraginkorra. Aukera hori ez dagoenean, eskolak betetzen du gehienetan egiteko hori, baina eskola ez da nahikoa bera bakarrik hizkuntza baten transmisioa ziurtatzeko. Gazte askok eskolan ikasten dute euskara, baina, gero, beren artean gaztelaniaz hitz egiten dute.

Euskara erabiltzeko ohitura edo erabilerarekiko ardura ere transmititzen dute gurasoek

Euskara etxean eta lehen hizkuntza moduan ikasi dutenak dira, gehien bat, euskara erabiltzen dutenak. Etxea edo familia ditugu kultura eta hizkuntzari, esaterako, ongien eusten dietenak, izan ere, euskara irakastearekin batera, euskara erabiltzeko ohitura edo erabilerarekiko ardura ere transmititzen dute gurasoek.

**Hizkuntzak erabili egin behar dira**

Hizkuntza ezagutzeak, jakiteak

alegia, ez du esan nahi erabiltzen denik. Eskolaren zeregin nagusia ezagutzan sakontzea da baina eskolan ikasitakoa beste esparru batzuetan erabili egin behar da, ezagutza sendotzeko. Beste hainbeste esan daiteke kalitatearen inguruan, ezagutzak ez baitu ziurtatzen halabeharrez kalitatea. Kalitateak ez du esan nahi bakarrik, zuzentasunez idazteko eta hitz egiteko gaitasuna; harago doa, egokitasuna eta erosotasuna ere esan nahi baitu; alegia, hizkuntzak tresna egokia behar du izan edozein egoeratan, eta batez ere, tresna eroso, erosotasun horrek hiztuna hizkuntza hori erabiltzera eramaten duelako.

**Esfortzu txikiaren abantailak**

Helburu nagusia da umearen inguruan ahalik eta euskal girok aberatsena eta ugariena eskaintzea, izan ere, zenbat eta euskaraz bizitzeko aukera gehiago, orduan eta gehiago barneratu eta erabili du hizkuntza.

Egitasmoaren helburua da gurasoek, ahal duten neurrian, saiakera egitea beren seme-alabei euskararen ezagutza eta hizkuntza honekiko jarraera egokia erakusteko; pauso xumeen bidez aurrerapausoak ematea hizkuntzaren normalizazioan, esfortzu txikiak dituen abantailaz baliatuta.

**Familiak eredu**

Familia eredu asko aldatu da azken urteetan; beste hainbeste gertatu da etxeko hizkuntz ereduarekin: guraso euskaldunak daude, erdaldunak, bikote euskaldunak, erdaldunak, mistoak... Hain zuzen ere, guraso mota ezberdinei egokitutako laguntza gidak jarri dituzte eskuragarri kanpaina honetan, bikote euskaldun, erdaldun eta mistoek zuzendutako. Esate baterako, guraso euskaldunak jabetzen lagundu nahi diete etxean seme-alabei euskara transmititu, euskara hori ahalik eta egokiena izan eta erabiltzeko duen garrantziaz, izan ere, guraso asko dira, esaterako, umeari euskaraz egin bai, baina beren artean gaztelaniaz egiten dutenak.

Guraso erdaldunek aurrerapauso garrantzitsua egiten dute seme-alabei euskaraz ikasteko



Gurasoek etxean jasotzen dute umeekin erabiltzeko hitz goxoen zerrenda.

aukera ematen dietenean. Baina eskolak bakarrik ezin du hizkuntza biziberritu, horretara

Materiala ikastetze, etxe, guraso eta umeen behar ezberdinei egokitua dago

rako funtsezkoa baita familia eta, oro har, ingurune hurbila ahalik eta euskaldunena izatea eta etxean hizkuntzarekiko jarraera egokiak adieraztea eta jasotzea.

**Materiala eta ikastaroak**

Ikastetxei eta gurasoei lanak errazte aldera, hainbat material didaktiko eta pedagogiko sortu dute. Materiala ikastetze, etxe, guraso eta umeen adin eta behar ezberdinei egokitua dago.

Ume bat jaiotzen denean, gurasoei zori onetako eskutitza bidaltzen zaie, besteak beste, gurasoek umeak jasoko duen hizkuntz jabetzearen gaineko hausnarketa egin dezaten. Horrez gain, lotarako kantak dituen CDa eta aurrerago umeekin era-

beltzeko euskarazko hitz goxoen zerrenda jasotzen dute.

Haur eskola garaian, gurasoek gida bat jasotzen dute, egingo dituzten aukeraketen garrantziaz jabetzeko, esaterako, seme-alaben zaintzailea euskalduna izateak duen abantailaz.

Umeak eskolaratzen dituztenean gurasoei hainbat libururua eta esku-orri ere banatu zaizkie ikastetxeen bidez, gaiaren inguruan hausnartu eta nahi izanez gero, *etxeko lanak* egin ditzaten.

**'Hizkuntza ez da jaboia'**

Material hauez gain, gurasoei ikastaro ezberdinak eskaini dizkiete: ipuinak sortzen edo kontatzen ikasteko, eta kantuan eta jolasean ikasteko, beti ere euskaraz. Horrez gain, Kike Amonarriz eta Paula Casares adituen hitzaldiak izan dituzte aurreko eta aurtengo ikasturtean.

Ikastetxei dagokienez, *Hitzak ez du antzik jaboiarekin* izeneko DVDa prestatu dute ikastetxeekin batera, gurasoekin lantzeko. Helburua hona-

koa da: hizkuntz egoeraren berrikusketa orokorra egin ondoren, eta egindako aurrerapaucek gida bat jasotzen dute, egingo dituzten aukeraketen garrantziaz jabetzeko, esaterako, seme-alaben zaintzailea euskalduna izateak duen abantailaz.

Zenbat eta gehiago erabili jaboia, orduan eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago

**Lan talde teknikoa**

Egitasmo hau aurrera eramateko gaiaren inguruko lan talde teknikoa sortu zuten Buruntzaldean. Bertan, zonaldeko udal euskara teknikariak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saileko teknikari bat, HABEko teknikari bat eta Soziolinguistika Klusterreko kide bat daude. Lan taldea materiala sortu eta gaiaren inguruko hainbat ikerketa egiten ari da, egitasmoaren jarraitapena egiteaz gain. ||


**Hitzak ez du antzik jaboiarekin**

BERNARDO ATXAGA

Casablancan irakasle den Abdelfattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik jaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili jaboia, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Beste modu batera esanda, hitza biziko bada, nahitaezkoa da errepetizioa, nahitaezkoa jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen: *"hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrikaldu egin behar du bere ura"*.

Esan eta berresan egin behar da hitza. Hortik kanpora ez dago bizitarik. Erabilera da hitzaren ardatza.

Euskara aurrera aterako al den galdetzen didazu. Erabiliz gero aterako da; bestela, ez.

hitzak  
ez du antzik  
jaboiarekin



**Euskarako Batzordeak**

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak